



## Laudiok balkoietatik danborrada batekin omenduko du San Prudentzio

Udalerriko kultura- eta jai-espirtua bizirik mantentzeko, eta, aldi berean, Alarmako Egoerak COVID-19 koronabirusaren hedapena geldiaraztea bilatzen duen adierazpenak ezarritako neurriak errespetatuz, Udalak San Prudentzioren omenezko danbor erredoblea leiho eta balkoi guztietara eramateko eskatu die herritar guztiei. Udalak elkarrizketak izan ditu ikastetxeekin eta Rakatapla elkartearekin, beste urte batez, tradizio hori mantentzeko eta bideo bat grabatzeko. Bideo hori [www.laudio.eus](http://www.laudio.eus) webgunean eta udaleko sare sozialetan argitaratuko da, interesa duten pertsona guztiek dagozkien entseguak egin eta jarraitzeko aukera izan dezaten.

Apirilaren 27an izango da, San Prudentzio bezperan, 20:05ean, sanitarioei eskerrak emateko txalo zaparrada egin eta berehala. Horretarako, udal-webgunera sartuta, modu espezifikoan gaitutako esteka batera, egun horretan eta ordu horretan, Osoko Bilkuren Aretotik "Erretreta" eta "San Prudentzio martxa" zuzenean emango dira, denok entzun ditzagun musika eta danbor audioarrak modu akonpasatuan.

## Laudio homenajea a San Prudencio con una tamborrada desde los balcones

Con el fin de mantener vivo el espíritu cultural y festivo del municipio, a la vez que se respetan las medidas fijadas por la declaración del Estado de Alarma que busca frenar la expansión del COVID-19, el coronavirus, desde el Ayuntamiento, se han mantenido conversaciones con los distintos centros escolares y con la asociación Rakatapla para mantener, un año más, esta tradición. Se grabará un vídeo que será publicado en la página web [www.laudio.eus](http://www.laudio.eus) y redes sociales municipales, con el objetivo de que todas las personas interesadas puedan realizar y seguir los ensayos correspondientes.

Se celebra el 27 de abril, víspera de San Prudencio, a las 20.05 horas, justo después de los aplausos de agradecimiento a los sanitarios y sanitarias. Para esto, accediendo a la web municipal, a un enlace habilitado de manera específica, ese día y a esa hora se emitirá en directo desde el Salón de Plenos la "Retreta" y la "Marcha de San Prudencio", con el fin de que escuchemos la música y los tambores laudioarras de manera acompasada.



Odontología general • Cirugía  
Ortodoncia estética • Estética  
Plasma • PADI • Implantes  
Radiología 3D

[www.clinicadentalmundisalud.com](http://www.clinicadentalmundisalud.com)



**AMURRIO**  
C/ Iribxusi 4-6, bajo • 01470 Amurrio  
945 891 469

**LLODIO**  
Avda. Zumalakarregi 3, bajo • 01400 Ludio-Llodio  
946 721 927

FUNERARIA  
LARRAZ  
EHORZTETXEA

**CADA PERSONA ES ÚNICA. SU  
DESPEDIDA, TAMBIÉN.**

Funeraria Larraz te ayuda a dar el mejor  
adiós a tus seres queridos.

FUNERARIA LARRAZ EHORZTETXEA.  
SERVICIOS FUNERARIOS INTEGRALES EN  
ARABA Y BIZKAIA DESDE 1944

Ludio:  
C/ José María, 36  
Teléfono: 94 672 77 50  
Amurrio:  
Pol. Ind. Kalzadako A1  
teléfono: 94 672 77 50

Arrigorriaga:  
C/ La Cruz, 1  
Teléfono: 94 671 00 61  
Amorebieta:  
San Pedro, 26  
Teléfono: 94 671 00 61



[www.funeriallarraz.com](http://www.funeriallarraz.com)



## Laudio HAZIk aholkularitza pertsonalizatua ematen die merkataritzari, autonomoei, ETEei eta enpresei COVID-19ko osasun-krisia dela eta

2020ko apirilaren 2a, osteguna. Laudio HAZI tokiko garapenerako agentzia, Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin, berrantolatu egin da hasiera-hasieratik, enpresetik, saltokietatik, ETEetatik eta pertsona autonomoetatik planteatzen ari diren behar ugariei eta desberdinei erantzuna emateko.

Horretarako, Arabako Foru Aldundiak, lurraldeko eragile ekonomiko nagusiekin lankidetzan – Merkataritza Ganbera, sea, UAGA, Aenkomer eta Elkargo-, web-zerbitzu bat abiarazi berri du, hainbat administrazioak abian jarritako neurrietarako sarbidea errazteko, COVID-19k ETEetan eta autonomoetan eragindako krisiaren ondorioak arintzen laguntzeko.

'ayudasarabacovid19.eus' atariak informazioa bilatzeko sistema erraza eta eraginkorra du, bai eta administrazioek sustatutako eta kolektibo horietara berriaz bideratutako neurri eta arauen kudeaketa telematikorako lotura zuzena ere. ETEek, autonomoek, saltokiek, turismo- eta nekazaritza-elikagaien sektoreek eta abarrek informazio egituratua eta xehatua eskura dezakete haren bidez, Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Estatuako Gobernuak sustatutako laguntzei buruz, eta hainbat eragilek egindako jarduera-gidak eta informazio interesgarria ere biltzen ditu.

Profesionalen sare batek emango die erantzuna kontsultei, eta bakoitzaren berezitasunetarako egokienak diren neurriei buruzko aholkuak emango ditu. Horretarako, eta informazio gehiago nahi izatekotan sar daiteke [www.laudio.eus](http://www.laudio.eus) udal webgunean, baita Tokiko Garapen Agentziarekin, Laudio HAZIrekin, ere jar daiteke harremanetan, helbide elektronikoko hauen bidez: [promocioneconomica@laudio.eus](mailto:promocioneconomica@laudio.eus) eta [sustapenekonomikoa@laudio.eus](mailto:sustapenekonomikoa@laudio.eus).

## Laudio HAZI asesora de manera personalizada a comercios, autónomos, PYMES y empresas con motivo de la crisis sanitaria del COVID-19

Jueves, 2 de abril de 2020. La agencia de desarrollo local de Laudio, Laudio HAZI, con la ayuda de la Diputación Foral de Araba, se ha reorganizado desde el primer momento para dar respuesta a las numerosas y diferentes necesidades que se están planteando desde a las empresas, comercios, PYMES y personas autónomas.

Para ello, la Diputación Foral de Álava, en colaboración con los principales agentes económicos del Territorio – Cámara de Comercio, SEA, UAGA, Aenkomer y Elkargi-, ha lanzado un servicio web cuyo objetivo es el de facilitar el acceso a las medidas puestas en marcha por las diversas administraciones para contribuir a paliar los efectos de la crisis provocada por el COVID-19 sobre las PYMES y autónomos.

El portal 'ayudasarabacovid19.eus' cuenta con un sistema sencillo y efectivo para la búsqueda de información, además de enlace directo a la gestión telemática de las medidas y normas promovidas por las diversas administraciones y orientadas específicamente a estos colectivos. Las Pymes, autónomos, comercios, el sector turístico y agroalimentario, etc. pueden acceder a través de él a información estructurada y detallada sobre las ayudas promovidas por la Diputación Foral, el Gobierno Vasco, el Gobierno del Estado, e incluye también guías de actuación e información de interés elaboradas por diferentes agentes.

Una red de profesionales dará respuesta a las consultas y asesorarán sobre las medidas más adecuadas a las peculiaridades de cada uno/a. Para más información [www.laudio.eus](http://www.laudio.eus) y también se puede contactar con la Agencia de Desarrollo Local, Laudio HAZI, a través de los correos electrónicos: [promocioneconomica@laudio.eus](mailto:promocioneconomica@laudio.eus) y [sustapenekonomikoa@laudio.eus](mailto:sustapenekonomikoa@laudio.eus).

## Mikrorrelatoak: Konfinamendubaten istorioak

15 egun. Martxoaren 25etik apirilaren 8ra arte. Konfinamenduko bi aste hauetan zehar, pertsona askok idatzi digute "mikro-kontakizunak" atalean, beren testuak, marrazkiak, bideoak... bidaliz. Haiei guztiei eskerrak ematen dizkiegu parte hartzeagatik, beren burua, pixka bat, besteei erakusteagatik, besteekin partekatzeagatik, ekimen hau posible egin dutelako. Eskerrik asko, berriro ere, opari honengatik. Lan horiek guztiak berriro ikusteko, [www.laudio.eus](http://www.laudio.eus) udal webgunean sar zaitezke.

## Microrrelatos. Historias de un confinamiento

15 días. Del 25 de marzo al 8 de abril. Durante estas dos semanas de confinamiento, han sido muchas las personas que nos han escrito a este apartado de "microrrelatos", enviando sus textos, dibujos, videos... A todas ellas nuestro agradecimiento por su participación, por haber mostrado un poco de ellas mismas para los demás, por haber hecho posible esta sección.

Gracias, de nuevo, por este regalo. Si queréis volver a ver todos los trabajos, podéis entrar en la web municipal [www.laudio.eus](http://www.laudio.eus).



## Bandoa

Laudioko Udalak adierazpen instituzional bat argitaratu du, udalbatzan ordezkariak duten alderdi politiko guztiekin adostuta, lan-istripu batean herriko bizilagun bat hil dela salatze eta gaitzesteko. Adierazpen osoa ikusteko, sar zaitezke [www.laudio.eus](http://www.laudio.eus) udal-webgunean, "bandoak" atalean.

## Bando

El Ayuntamiento ha publicado una declaración institucional consensuada con todos los partidos políticos, que cuentan con representación en el pleno municipal, como denuncia y repulsa ante el fallecimiento de un vecino de la localidad en un accidente laboral. Para ver la declaración completa entrad en [www.laudio.eus](http://www.laudio.eus), apartado "bandos".





## Udalak herrian egiten dituen desinfekzio lanetan Arabako suhiltzaileak laguntzen ari dira

2020ko martxoaren 30a, astelehena. Larrialdi eta Salbamendu Zerbitzua herritarren segurtasuna bermatzen duen eguneroko lana eta osasunerako funtsezkoa den beste lan bat batera-tzen ari da COVID 19k, koronavirusak, eragindako krisi honen erdian: gure lurraldeko leku jendetsuenen desinfekzioa. Azken astean, suhiltzaile forelek, Gasteizkoek lagunduta, garbiketa lanak egin dituzte hiriburuko foru egoitzetan eta egoitza pribatuetan, baina baita Arabako beste hainbat udalerritan ere.

Halaber, Laudioko osasun-zentroa, Zumalakarregi kalean zehar dauden supermerkatuen ingurua, gasolindegia, zaborrontziak eta auzotar gehien biltzen dituzten udalerriko hainbat gune komun desinfektatu dituzte, baita herrian dauden tren-geltokiak ere.

## Los bomberos de Álava colaboran en las labores de desinfección que realiza el Ayuntamiento en el municipio

Lunes, 30 de marzo de 2020. 2020. El servicio de Emergencias y Salvamento está compaginando su labor diaria que garantiza la seguridad de la ciudadanía, con otro trabajo fundamental para la salud, en medio de esta crisis provocada por el COVID 19, el Coronavirus: la desinfección de los lugares más concurridos de nuestro Territorio. Los Bomberos Forales, acompañados por los de Vitoria-Gasteiz, han llevado a cabo labores de limpieza en las residencias forales y privadas de la capital, pero también en otros municipios alaveses.

Asimismo, han desinfectado el centro de Salud de Llodio, el entorno de los supermercados que se encuentran a lo largo de la calle Zumalakarregui, la gasolinera, contenedores de basura y numerosas zonas comunes del municipio que cuentan con una mayor afluencia, así como las estaciones de tren que se encuentran en la localidad.

## Udalak 25 tableta digitala erosi ditu Laudioko gazteei laguntzeko, klase telematikoen jarraipena eginez

2020ko apirilaren 6a, astelehena. Gazte askok, eskolak bertan behera uztearen ondorioz, gailu digital baten bidez jarraitu behar dituzte ikasketak. Udalak ikusi du zenbait bizilagunek ez dutela tabletik irakaskuntzaren erritmoa behar bezala jarraitu ahal izateko. Horretarako, harremanetan egon da ikastetxe ezberdinetako zuzendaritzekin, une bakoitzean egoera zein den eta zein behar antzeman dituzten jakiteko.

Hori dela eta, 25 tableta erosi dira, Eroski Laudioaren laguntzarekin, eta Gurutze Gorriko profesionalek banatu dituzte, Udalak ezarritako argibideei eta lehenasune jarraituz.

Horrela, eten digital hori arindu nahi da, eta familia guztiek hezkuntza-modu berri horretara sartzeko aukera izango dute salbuespen-egoera horrek irauten duen bitartean. Amaitutakoan, jaso egingo dituzte, beste udal erabileretara bideratu ahal izateko.

## El Ayuntamiento adquiere 25 tabletas digitales para ayudar a las y los jóvenes con el seguimiento de las clases telemáticas

Lunes, 6 de abril de 2020. Son muchas las y los jóvenes que debido a la suspensión de las clases deben seguir sus estudios a través de un dispositivo digital. Desde el Ayuntamiento han detectado que algunos vecinos y vecinas no disponen de una Tablet para poder seguir adecuadamente el ritmo docente. Para ello, han estado en contacto permanente con las direcciones de los diferentes centros educativos para conocer cuál es la situación en cada momento y qué necesidades han detectado.

Por esto, se han comprado 25 tabletas, con la colaboración de Eroski Llodio, que se han repartido por parte de la Cruz Roja siguiendo las indicaciones y preferencias fijadas desde el consistorio. Se pretende así paliar esta brecha digital y que todas las familias puedan acceder a esta nueva forma de educación mientras dure esta situación de excepcionalidad. Una vez finalizada, se recogerán para poder destinarlos a otros usos municipales.

## Indarkeria matxistaren biktimezako premiazko baliabideak eta zerbitzuak

Euskadin, indarkeria matxistaren biktimei premiazko arreta emateko euskal erakundeek eskaintzen dituzten baliabide eta zerbitzu guztiak martxan jarraitzen dute, hala nola SATEVIK 24 orduko telefono bidezko arreta-zerbitzuak, hala nola 112 larrialdiko aplikazioa, entzumen- edo hizketa-zailtasunak dituzten pertsonentzat eskuragarri dagoena eta GPS sistemaren bidez lokalizazioa erraztu dezakeena.

Laudioko Udaletik, ildo berari jarraituz, behar duten emakumeen eskura mantentzen da Udaleko Emakume eta Berdintasun Zerbitzua. Horrela, Gizarte Ongizateko arretarako telefonoa gaituta geratzen da: 94 40 34 840.

Era berean, Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundeak, koordinazio-lanean, herritarrei ematen dien zerbitzuari eus-tzen dio telefonoz (945016702) eta posta elektronikoz (emakunde.zuzendaritza@euskadi.eus). Era berean, Emakunde gogorazi du bizi duguna bezalako alarma-egoeretan giltzarri izaten jarraitzen duela emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurkako jarrera aktiboa. Hori geldiaraztea gizarte hau osatzen dugunon erantzukizun partekatua da, bakoitza gure erantzukizun-eremutik.

## Recursos y servicios urgentes a víctimas de violencia machista

En Euskadi continúan en marcha todos los recursos y servicios de atención urgente a víctimas de violencia machista que ofrecen las instituciones vascas, tales como el SATEVI el teléfono de atención telefónica de 24 horas, como la APP del 112 de emergencia accesible para personas con dificultades auditivas o de habla y que puede facilitar la localización a través del sistema GPS.

Desde el Ayuntamiento de Laudio, siguiendo con la misma línea, se mantiene a disposición de las mujeres que lo necesitan el Servicio de Mujer e Igualdad del Ayuntamiento. De este modo, queda habilitado el teléfono de atención de Bienestar Social: 94 40 34 840.

Asimismo, el Instituto Vasco de la Mujer, Emakunde, en su labor de coordinación, mantiene el servicio a la ciudadanía vía telefónica (945016702), así como por correo electrónico emakunde.zuzendaritza@euskadi.eus). De igual modo, Emakunde ha recordado que en situaciones de alarma comunitaria como la que vivimos, sigue siendo clave la actitud activa contraria a la violencia machista contra las mujeres.

## Ez joan udaletxera. Zure kontsultak eta kudeaketak, aurretik telefonoz

Gogorarazten dizuegu koronabirusen aurkako prebentzio neurri gisa eta gaur egun daukagun ezohiko egoera dela eta, herritarrek nahitaez eskatu behar dutela hitzordua udaletxera joan aurretik, 010 edo 944 034 800 zenbakietara deituta edo laudio@laudio.eus helbidera mezu bat bidaliz. Baita Gizarte Ongizateko arretarako telefonoa gaituta geratzen da: 94 40 34 840. Zenbaki horietara deituta, egin beharreko kudeaketak bideratuko zaizkie, edo nola egin argituko zaie.

Gogoan izan: udaletxera etorri aurretik, deitu 010 edo 944 034 800 zenbakietara

## No acudas al ayuntamiento. Tus consultas y gestiones, primero por teléfono

Recordamos que debido a la situación extraordinaria actual provocada por el coronavirus, sólo se atiende a la ciudadanía a través de cita previa, llamando al 010 o al 944 034 800 o mandando un mensaje al correo laudio@laudio.eus. También se encuentra disponible el teléfono de Bienestar Social: 94 40 34 840. A través de estos teléfonos se le resolverán sus gestiones, se les indicará cómo hacerlo o se les dará cita previa.

Recuerde, antes de venir al Ayuntamiento, llame primero al 010 o al 944 034 800.





**EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIARI EZ  
NO A LA VIOLENCIA  
CONTRA LAS MUJERES**

**24 h**

**DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU  
LLAMA, TE AYUDAREMOS**

INFORMAZIOA ETA BESTE EDOZEIN LAGUNTZA  
PARA INFORMACIÓN Y CUALQUIER OTRO TIPO DE AYUDA

**900 840 111**

LARRIALDI BAT BADA  
SI ES UNA EMERGENCIA

**((112))  
SOS  
DEIAK**

LAGUNTZA ERAGINKORRA

## Udalak herriko azokak egiteko baimena eman du

2020ko apirilaren 15a, asteazkena. Hainbat astez bertako azokak ospatu gabe egon ostean, Laudiok bere presentzia eta zerbitzua berreskuratuko ditu ostegunetik aurrera. Horrela, Laudiok bere babesa berretsi die bertako ekoizleei eta ostegun eta larunbatetan ospatu ahal izango dira Aldai Plazan segurtasun eta osasun neurri zorrotzak betez, hala nola postuen arteko 5 metroko distantzia, metro bateko tartea duten bezeroei arreta eskaintzea eta bertako ekoizleek maskarak erabiltzea. Udalak maskara batzuk emango dizkie ekoizle guztiei, osasuna eta higieena zaintzeko.

## El Ayuntamiento autoriza la celebración de los mercados locales

Miércoles, 15 de abril de 2020. Tras varias semanas sin celebrar los habituales mercados locales, Laudio recuperará a partir de este jueves su presencia y servicio. Así, Laudio reitera su apoyo a las y los productores locales y autoriza la colocación de los puestos en la Plaza Aldai los jueves y sábados con el cumplimiento de estrictas medidas de seguridad y salud como la distancia de 5 metros entre puestos, la atención a clientes con separación de un metro y el uso de mascarillas por parte de los productores locales. El ayuntamiento facilitará a todas las y los productores unas mascarillas con el objetivo de preservar su salud e higieña.





## Udalak bando bat egin du non alarma-egoeran hartutako zenbait neurri biltzen dituen

2020ko apirilaren 1a, asteazkena. Eusko Jaurlaritzak eta Laudio Udalaren Lan Osasuneko atalak koronabirusaren hedapena geldiarazteko helarazi dituzten osasun-gomendioetan oinarrituta, Laudioko Udalak Bando bat idatzi du, gogora ekartzeko alarma egoera honetan hezkuntzaren, gizartearen, gazteriaren, kulturaren zein kirolaren arloetan hartutako neurri ententzaile hauek:

### Laudio Udalak covid-19 birusaren aurrerapena geldiarazteko hartutako neurriak

Eusko Jaurlaritzak eta Laudio Udalaren Lan Osasuneko atalak koronabirusaren hedapena geldiarazteko helarazi dizkiguten osasun-gomendioetan oinarrituta, Laudioko Udalak gogora ekarri nahi ditu alarma egoera honetan hezkuntzaren, gizartearen, gazteriaren, kulturaren zein kirolaren arloetan hartutako neurri ententzaile hauek.

#### ▪ Hezkuntza, Gizarte eta Gazteria Arloak

Ikastetxeak eta Udal Euskaltegia itxi dira. Herriko adinekoen zentro soziokulturalak eta Gaztelekuko zerbitzuak ere itxita daude. Gainera, haurtzetako parkeak hesitu dituzte, ez daitezten erabili.

#### ▪ Kultura eta Kirol Arloak

Kultur etxeak itxi dira, eta haur nahiz familientzako jolas-jarduera guztiak bertan behera utzi. Herriko kirol instalazio guztiak (udal futbol zelaiak, frontoia...) eta kiroldegia ere itxita daude. Halaber, bertan behera geratu da kirol jarduera eta ikastaro oro.

#### ▪ Herritarrei Arreta ematea larrialdietarako eta kontsultak egiteko

Udal izapideak modu telematikoa gomendatzen da, udal-letxera joan barik, Gizarte Ongizate Arloaren edo Emakume eta Berdintasun Arloaren barruko premiazko kasuetan izan ezik. Horretarako, alde aurreko hitzorduek emango dira kasuan kasuko udal arlotik. Izapideak egiteko, herritarrek hainbat bide dituzte:  
-Udalaren egoitza elektronikoa – [www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)-Telefonoz 010 telefono-zenbakira deituta – 944.034.800, Laudiotik kanpo bada – Eta [audio@audio.eus](mailto:audio@audio.eus) helbide elektronikoaren bidez.

#### ▪ Administrazio-epeak etetea

Udalak bertan behera utzi ditu alarma egoerak dirauen bitartean zerga eta udal tasa guztien epe administratiboak, hala nola, indarrean dauden eta alde aurretik iragarri diren zaborren, lehiaketa publikoen, helegiteen eta eskaeren epe administratiboak. Behar bezalako aurretiaz emango dira xehetasun gehiago, besteak beste, datak eta ezohiko egoera amaitu ondorengo gainerako alderdiak.

#### ▪ Garrantzitsua -#STOPZURRUMURRUEI

Herritarrei eskatzen zaie Udalaren kanal ofizialen eta sare sozialen bidez informatzeko:

FACEBOOK: @laudiokoudala

TWITTER: @LaudiokoUdala

INSTAGRAM: @laudiokoudala

Eskerrik asko zuen ulerberatasunagatik eta barkatu eragindako eragozpenak.

## El Ayuntamiento ha elaborado un bando donde recopila varias de las medidas tomadas durante el estado de alarma

Miércoles, 1 de abril de 2020. El Ayuntamiento de Laudio, y en base a las recomendaciones sanitarias trasladadas desde el Gobierno Vasco y el departamento municipal de Salud Laboral para contener la expansión del coronavirus, ha elaborado un Bando para recordar las medidas suspensivas tomadas en el ámbito educativo, social, juvenil, cultural y deportivo, durante el Estado de Alarma.

### Medidas adoptadas por el Ayuntamiento de Laudio/Llodio ante el avance del covid-19, el coronavirus

En base a las recomendaciones sanitarias trasladadas desde el Gobierno Vasco y el departamento municipal de Salud Laboral para contener la expansión del coronavirus, el Ayuntamiento de Laudio recuerda las siguientes medidas suspensivas tomadas en el ámbito educativo, social, juvenil, cultural y deportivo, durante el Estado de Alarma.

#### • Ámbito educativo, social y juvenil

Permanecerán cerrados hasta nuevo aviso los centros educativos y el Euskaltegi municipal. También los centros socioculturales de mayores y los servicios del Gazteleku. Además, se han acordonado los parques infantiles para evitar su utilización.

#### • Ámbito cultural y deportivo

Se han cerrado las casas de Cultura y suspendido todas las actividades lúdicas dirigidas al público infantil y familiar. También están cerradas todas las instalaciones deportivas de la ciudad (campos de fútbol municipales, frontón...) y los polideportivos. Asimismo, se han suspendido todas las actividades y cursos deportivos.

#### • Atención ciudadana para realizar consultas y urgencias

Se recomienda realizar los trámites municipales de manera telemática y no acudir al Ayuntamiento salvo casos urgentes dentro del Área de Bienestar Social o Mujer e Igualdad, para lo cual se facilitarán citas previas desde cada área municipal correspondiente. Para realizar los trámites, la ciudadanía cuenta con diferentes canales:-Sede electrónica del Ayuntamiento – [www.laudio.eus](http://www.laudio.eus) -Telefónicamente llamando al 010 – 944.034.800 si es desde fuera de Laudio- y a través del mail [audio@audio.eus](mailto:audio@audio.eus)

#### • Suspensión de plazos administrativos

El Ayuntamiento ha suspendido durante el Estado de Alarma los plazos administrativos de todos sus impuestos y tasas municipales como la de basuras o alcantarillado vigentes y anunciadas previamente, concursos públicos, recursos y solicitudes. Se anunciarán con antelación más detalles como fechas y demás pormenores tras la finalización de esta situación extraordinaria.

#### • Importante - #STOPBULOS

Se ruega a la ciudadanía que se mantenga informada a través de los canales oficiales y redes sociales del Ayuntamiento:



FACEBOOK: @laudiokoudala

TWITTER: @LaudiokoUdala

INSTAGRAM: @laudiokoudala

Gracias por la comprensión y perdón por las molestias ocasionadas.

Atención psicológica a la población ofrecida por profesionales voluntarios del Colegio Oficial de Psicólogos de Álava.

631 384 965  
colegiopsicoalava@gmail.com

Trámites de 18:00 a 20:00 h  
E-mail sin límite

## Perez Sagutxoak eta Marigorringo Teiltupeekoak beren lanarekin jarraituko dute

Laudioko haur eta umeak oso ondo portatzen ari dira eta haiek etxean geratzea laguntza handi-handia da koronabirusa joan dadin. Hori dela eta, Perez Sagutxo Jaunarekin eta Marigorringo Teiltupeekoa Andrearekin hitz egin du Udalak segurtasun-neurri egokiak presta ditzaten eta eskuak eta aurpegia ondo garbitu ditzaten, uraz eta xaboiz. Hori bete ondoren, udalak eskatzen die bere lanean jarraitzeko, Laudioko etxeak bisitatzeko, oso gertakari berezia baita hartz edo hagin bat erortzea.

## Ratoncito Pérez y Marigorringo Teiltupeekoa siguen con su trabajo

Las niñas y niños de Laudio están portándose muy bien y ayudando mucho quedándose en casa para que el coronavirus se vaya. Por esto, se ha hablado con el Sr. Ratoncito Pérez y la Sra. Marigorringo Teiltupeekoa para que preparen las medidas de seguridad oportunas y se laven siempre las manos y la cara, con agua y jabón. Una vez cumplan con ello, el ayuntamiento les pide que continúen con su trabajo, y visitando los hogares del municipio, pues la caída de un diente es un acontecimiento muy especial.



## Arabako Gurutze Gorriak eta Psikologoek Elkargoak doako laguntza eskaintzen diete laudioar herritarrei

2020ko apirilaren 7a, asteartea. Gurutze Gorriak eta Arabako Psikologoek Elkargo Ofizialak elkarlanean jardun nahi dute gizartea bizitzen ari den egoera honetan, COVID-19 koronabirusak eragindako krisia dela eta. Horretarako, bi erakundeek telefono bidezko doako arreta-zerbitzu bat jarri dute abian, Arabako biztanleei oro har zuzendua, eta zerbitzu hori borondatez eskaini duten profesionalak artatuko dute. Ematen ari den egoeraren ondorioz, pertsona asko hasi dira arlo psikologikoan ezinegona sentitzen, eta emozio bizi batzuk sentitzen ari dira, hala nola larritasuna, beldurra, antsietatea, tristura edo amorrua.

### Doako zerbitzua

Sentimendu horiei guztiei aurre egiteko, psikologoek euren arreta eskaintzen dute. Laguntza hori behar duenak eskatu egin behar du, bai Arabako Gurutze Gorriaren orrian horretarako sortutako atalaren bidez [cruzrojaalava.es/buzon-de-sugerencias](http://cruzrojaalava.es/buzon-de-sugerencias), bai Arabako Psikologoek Elkargoaren kasuan, [colegiopsicoalava@gmail.com](mailto:colegiopsicoalava@gmail.com) helbide elektronikoaren bidez edo telefonoz, 631 384 965 telefono zenbakira deituta. Behin eskaera edo deia eginda, psikologiako profesionalak eskatzaileekin harremanetan jarriko dira.

## La Cruz Roja y el Colegio de Psicólogos de Araba ofrecen ayuda gratuita a la ciudadanía laudioarra

Martes, 7 de abril de 2020. La Cruz Roja y el Colegio Oficial de Psicólogos de Álava quieren colaborar con su grano de arena solidario en esta situación que la sociedad está viviendo, con motivo de la crisis provocada por el COVID-19, el coronavirus. Para ello, han puesto en marcha un servicio de atención telefónica gratuita, dirigido a la población alavesa en general y que estará atendido por profesionales que se han prestado de forma voluntaria a hacerlo. Debido a la situación actual, hay muchas personas que han comenzado a sentir malestar en el ámbito psicológico y a experimentar algunas emociones intensas como angustia, miedo, ansiedad, tristeza o rabia.

### Servicio gratuito

Para hacer frente a todos estos sentimientos, los psicólogos ofrecen su atención. Quien precise de esta ayuda tiene que solicitarla, bien a través del apartado creado para tal efecto en la página de Cruz Roja Araba [cruzrojaalava.es/buzon-de-sugerencias/](http://cruzrojaalava.es/buzon-de-sugerencias/) y en el caso del Colegio de Psicólogos de Álava, a través del correo electrónico [colegiopsicoalava@gmail.com](mailto:colegiopsicoalava@gmail.com) o por vía telefónica, llamando al 631 384 965. Una vez realizada la solicitud o llamada, los profesionales de la psicología se pondrán en contacto con los solicitantes.



**BAUTISTA**  
MUEBLES Y DECORACIÓN

#QuedateEnCasa 

Nos vemos muy pronto en  
**Polígono Santa Cruz, 1.**  
**Llodio**

[www.bautistamuebles.com](http://www.bautistamuebles.com)



Asesoría Aiala

> Berralde, 1 - AMURRIO  
TF: 945 890 450  
Fax: 945 890 051  
[aiala@asesoriaaiala.com](mailto:aiala@asesoriaaiala.com)  
[www.asesoriaaiala.com](http://www.asesoriaaiala.com)

**Fiscal - Contable - Laboral - Seguros**

DECLARACIONES DE RENTA - CONTRATOS  
HERENCIAS - NOMINAS Y SEGUROS SOCIALES

ASESORAMIENTO A EMPRESAS Y AUTÓNOMOS





## ETXEAN ON EGIN!

### UMEENTZAKO SUKALDARITZA IKASTAROA

Koronabirusak eragindako krisialdian sartu aurretik, aurreikusia zegoen, aurreko urteetan bezala, Lehen Hezkuntzako umeentzako sukaldaritza ikastaro bat antolatzea oporretako bigarren aste honetan.

Egoera bereziak galarazi duenez, bestelako formula erabiliko da aurten ikastaroa eskaintzeko: sareen bidez, nork bere etxean prestatzeko platerak.

Gogoan izan, bestalde, sukaldaritza ez ezik, euskararen erabilera dagoela ekimen honen atzean, umeak ohitu daitezela harekin, eskolaz kanpoko jardueretan ere.

Ikastaroa lau egunetan eskainiko da, asteazken eta ostiraletan, eta errezeta-bideo egun horietako 18:00etan igoko da udal webera. Hau da egitarau gosetia:

#### Apirilak 15, asteazkena, 18:00etan

- Entsalada mistoa
- Berakatz zopa
- Fruta entsalada

#### Apirilak 17, ostirala, 18:00etan

- "Capresse" entsalada
- Falafela jogurta saltsarekin
- Banana irabiatua

#### Apirilak 22, asteazkena, 18:00etan

- Arrautza betezko entsalada
- Ilarrak urdaiazpikoarekin
- Flana

#### Apirilak 24, ostirala, 18:00etan

- Ziazerba eta mandarina entsalada
- Patatak errioxar erera
- Trufak

Ekintza hau Laudio udaleko Hizkuntza Normalizaziorako eta Identitaterako Zerbitzuak antolatu du eta bere produkzioaz Kokoriko Hezkuntza Faktoria (Aiaraldea) arduratu da.



## ETXEAN ON EGIN

### CURSO DE COCINA PARA PEQUES

Antes de sumergirnos en la crisis provocada por el Coronavirus, estaba previsto, como en años anteriores, organizar un curso de cocina para niños de Educación Primaria esta segunda semana de vacaciones.

Pero como la excepcional situación lo ha impedido, el curso se ofrecerá bajo otra fórmula: mediante las redes, para que cada peque cocine sus platos en casa.

Recuerda, por otra parte, que además de la cocina, detrás de esta iniciativa está el uso del euskera, que los niños y niñas se familiaricen con ella, también en las actividades extraescolares. El curso se impartirá en cuatro días, miércoles y viernes, y se subirán a la web municipal las vídeo-recetas a las 18:00 horas. Este es el programa "hambriento":

#### Miércoles 15 de abril, 18:00 horas

- Ensalada mixta
- Sopa de ajo
- Ensalada de fruta

#### Viernes 17 de abril, 18:00 horas

- Ensalada "Capresse"
- Falafel con salsa de yogur
- Plátano batido

#### Miércoles 22 de abril, 18:00 horas

- Ensalada de huevos rellenos
- Guisantes con jamón
- Flan

#### Viernes 24 de abril, 18:00 horas

- Ensalada de espinacas y mandarina
- Patatas a la riojana
- Trufas

Esta actividad ha sido organizada por el Servicio de Normalización Lingüística e Identidad del Ayuntamiento de Llodio y su producción ha corrido a cargo de la Kokoriko Hezkuntza Faktoria (Aiaraldea).

## ONGI ETORRI #LAIAPlazara !

Ongi etorri #LAIAPlazara: Arabako Foru Aldundiak, Arabako Koadrilen eta Udalen Berdintasunerako Teknikarien Sareak abian jarritako online gune bat. Gune horretan, bizipenak partekatu eta gure beharrei erantzun ahal izango zaie COVID19 delakoaren testuinguruan. Plaza birtual bat non elkartu, partekatu, pentsatu, sentitu, zaindu, bota eta elkarlagundu.

Erronka horretan, ZUEK zarete PROTAGONISTAK. Lagunduko gaituzue? Goazen plazara!

<http://www.laiaplazara.eus/>

## ONGI ETORRI #LAIAPlazara!

Bienvenidas a #LAIAPlazara: Un espacio online puesto en marcha por la Diputación Foral de Alava, La Red de Técnicas de Igualdad de las Cuadrillas y Ayuntamientos de Álava en el cual compartir vivencias y dar respuesta a nuestras necesidades en el contexto del Covid19. Una plaza virtual donde reunirnos, juntarnos, pensarnos, sentirnos, cuidarnos, arroparnos y respondernos.

Éste es un reto donde VOSOTRAS sois las PROTAGONISTAS. ¿Nos acompañáis? ¡Vayamos juntas a la plaza!

<http://www.laiaplazara.eus/>